

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Barrikako Udala****Kirol erakundeentzako eta kirol eta/edo kultur jarduerak sustatzen dituzten elkarteentzako 2019ko ekitaldirako diru-laguntzak.**

Alkatetzaren 171/2019 zenbakidun dekretuaren bidez, ekitaldian kultur eta laguntza jarduerak egiteko bizilagunentzako diru-laguntzen deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dabean oinarri berezietan araututa-koarekin bat etorritik, jarraian zehazten dan moduan.

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko erabakian ahalmena ematen jakon alkateari ordenantza garatzeko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu dau:

Lehenengoa

2019ko ekitaldian kirol edo kultura-jarduerak sustatzen dabean elkarteetarako diru-laguntzen deialdia onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriok 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

Bigarrena

Diru-laguntzaren aurrekontu-muga hiru mila (13.000,00) eurokoa da, eta 3300 48001. aurrekontu diru-sailaren pentzura ordainduko da.

Hirugarrena

1. 2019. urtean udalerrian kultura eta kirol jarduerak egin eta garatzeko emango dira diru-laguntzak, betiere laugarren idatz-zatiaren arabera onuraduntzat jotzen diren erakundeek egiten badabaz.

Ondorio horietarako, proiektuak kultura eta kirol interesekotzat joko dira udal eskaintzari ekarpen esanguratsua egiten badiote, balio artistiko eta sortzailea dabelako eta kultura eta kirol jarduera sustatzen dabelako.

2. Erakunde edo elkarte bakoitzak gehienez ere hiru proiektu aurkeztu ahalko du, askotariko jarduerak bilduta. Arlo hauen inguruko jarduerak lagunduko dira diruz:

- Arte eszeniko (ikuskitzen erakustaldi edo eszenaraztea) amateurren (ez profesionalen) adierazpenak.
 - Euskara sustatzeko programak.
 - Musika.
 - Folklorea.
 - Adindunen zein adingabeen aisialdi eta astialdiarekin zerikusia daben proiektuak.
 - Udalerriko elkarten artean ezarritako eremuekin zerikusia duten lankidetzaproiektuak.
 - Aukera berdintasuna eta genero indarkeriaren aurkako borroka sustatzea xede duten proiektuak (azaroaren 25a/martxoaren 8a).
 - Bidaiak eta txangoak.
 - Adinekoen sustapenerako garatu beharreko jarduerak (Adinekoen Eguna).
 - Adingabeentzako kirol ekitaldiak antolatzea (federazioa,...).
3. Diruz laguntzeko zio izan diren proiektuak 2019ko ekitaldian garatu beharko dira.
4. Aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira honako hauek:
- 6 pertsona baino gutxiagori zuzendutakoak.
 - Jaietako egitarauak.



- 300 euro baino gutxiagoko aurrekontudun jarduerak.
- Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak eta ekitaldiak (txangoak izan ezik):

5. Gastu diruz lagungarriak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin garbiki bat datozen eta behar-beharrezkoak diren gastuak, betiere behar bezala justifikatu badira. Inola ere ez dira diruz lagunduko erakunde eskatzaileen egitura kudeatzeko diren gastuak (langileria gastuak, komunikazioa eta abar).

6. Deialdi honen helburua da erakunde eskatzaileen ekintza laguntzea eta osatzea, inoiz ez jarduera egiteagatik sortu diren gastu guztiak finantzatzea.

Laugarrena.— Onuradunak

1. Ordenantza honetan arauturiko diru-laguntzen onuradun honako hauek izan ahalko dira:

- Erretiratuen elkarteak.
- Emakumeen elkarteak.
- Kultur elkarteak.
- Kirol elkarteak edo klubak.
- Auzo elkarteak.

Betiere irabazi asmorik gabeko elkarteak edo klubak badira.

2. Betekizun hauek bete beharko dabez:

- Egoitza soziala Barrikako udalerrian izatea.
- Dagokion erregistroan eta Barrikako Elkartearen Udal Erroldan erroldatuta egotea, informazio eguneratua izanda.
- Irabazi asmorik gabe eratuta izatea.

Kirol elkarteak edo erakundeak badira, aurrekoen gain betekizun hauek ere bete beharko dituzte:

- Bizkaiko edo Euskal Herriko kirol federazio bati atxikirik egotea. Federazio horren modalitateak, betiere, haien sustapen edo praktika izan behar du xede.

Bosgarrena.— Diru-laguntzak emoteko modua

Diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta hark aurkeztu diren eskaerak konparatuko ditu, horien artean lehentasunak ezartzeko helburuarekin. Horretarako, 7. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak hartuko ditu kontuan Hala, udal diru-laguntza puntu gehien lortu dabenei emango deusie, betiere dagokion aurrekontupartidan ezarritako mugarekin Ordenantza honen bigarren artikuluan zehaztu da.

Seigarrena.— Eskaerak eta epeak

1. Diru-laguntzaren eskaerak edo proiektuak udaletxean aurkeztu beharko dira, eta, horiekin batera, hurrengo idatz-zatietan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira, erakunde edo elkarteko presidenteak edo idazkariak sinaturik.

2. Eskaerak aurkezteko epea egutegiko 20 egunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Izaera orokorreko agiri hauek erantsi beharko dira:

- Eskaeraren sinatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Jarduteko ahal edo ordezkaritzaaren egiaztagiria.
- Erakundearen IFKren fotokopia.
- Dagokion erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- Dagokien federazioko kide egin izanaren ziurtagiria (kirol erakundeen kasuan).
- Erakundearen Estatutuen kopia (udal artxiboetan lehendik jasota ez badagoz edo aldatu badira).
- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako betebeharreran egunean egotearen egiaztagiria.



Adierazitako agirietakoren bat Administrazio honek lehendik bere eskuetan badauka, diru-laguntza eskatu dauenak ez aurkezteko eskubidea izango dau, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3. artikuluko bigarren paragrafoan agindutakoarekin bat etorriz.

Horrelakoetan, interesatuek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dabee, esanez ez direla aldatu agiriok emon ziren uneko ingurumariak, eta berariaz zehaztu beharko dabe zein dokumentu diren horiek, zein datatakoak diren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren.

4. Dokumentu espezifiko hauek erantsi beharko dira:
- Proiektuaren deskribapena, proiektua azaltzen duen memoria barne duena. Memorian, proiektua zer jardueraz osatzen den zehaztuko da, eta honako hau adieraziko da:
 - Jardueran eragiteko beharra.
 - Jardueraren hartzaileak, adina, generoa, jatorria eta jarduera egingo den lekua.
 - Lortu nahi diren helburuak.
 - Sarrera-gastuen aurrekontua.
 - Jarduera egiteko lekuak eta egunak.
 - Proiektuaren alderdi berritzaileei buruzko txostena.
 - Euskarak proiektuan izango duen presentziari eta erabilerari buruzko txostena.

Eskaerak erabat formalizatzen ez badira edo agiriren bat falta bada, interesdunei eskatuko jakiee egutegiko 10 eguneko epean zuzendu dezatela hutsunea edo aurkez ditzatela beharrezko dokumentuak, eta adieraziko zaie hala egiten ez badabe eskaeran atzera egin dabela joko dala.

Zazpigarrena

Aurkeztutako proiektuak balioztatzeke, jarraian zehazten diren irizpideak hartuko dira kontuan, eta proiektuen haztapena, gehienez ere 100 puntukoa, jarraian zehazten den moduan egingo da:

	Irizpideak	Puntuak gehienez
1	Berrikuntzaren, diziplinartekotasunaren edo lankidetzaren aldeko erronka duten kirol eta kultur proiektuak:	10
2	Jardueran eragiteko beharra, kontuan hartuta zein den proiektuaren kultur eta kirol diziplina. Kasuan kasuko kultur edo kirol modalitatearen arabera.	10
3	Proiektuak udal kultura eta kirol eskaintzari egiten dion ekarpena: 20 puntu.	20
4	Kasuan kasuko eskaintzaren edo proiektuaren eremu pertsonala: Hartzaileak kontuan hartuta baloratuko da. 1etik 5era bitarteko puntuak emango jakie 16 urtetik beherakoentzat, 50 urtetik gorako andra gizonentzat eta jubilatuentzat antolatzen diren jardueri.	5
5	Proiektuaren finantzazio maila: Ratio bat kalkulatu da (proiektuaren diru sarrera guztiak — bai bazkideen bidez lortzen direnak, bai babesleen bidez lortzen direnak, bai jarduerak berak sortzen dituenak — zati proiektuak sortzen dituen gastuak. Zenbat eta ratio handiagoa, hainbat eta puntu gehiago.	10
6	Erakundearen ibilbidea. Irizpideak: — Deialdiaren aurreko urtean gutxienez jarduera bat egin izana (5 puntu). — Gutxienez 20 bazkide izatea (5 puntu).	10
7	Euskararen erabilera. Euskararen erabilerak nabarmena izan beharko dau.	15
8	Berdintasunerako jarduerak sustatzea.	10
9	Udalerriko beste elkarteekin batera lankidetzat proiektuak.	10

z dira diruz lagundukoutxienez 50 puntu lortzen ez daben proiektuak.



Diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurrekontuaren %80 izango da, eta inola ere ez da 1.700 eurokoa edo handiagoa izango. Puntu gehien eskuratzen dauen proiektuak lortuko dau finkatutako zenbatekoa, eta gainerakoek gehieneko puntuazioaren arabera jasoko dabe.

Proiektu guztiek kostuaren zenbateko osoaren gutxienez euren finantzaziorako %20a izan beharko dabe.

Zortzigarrena. — Aholkularitza

Udalaren Informazio Batzordeak behar den aholkularitza emongo dau, ordenantza honetan litekeen edozein zalantza argitzeko.

Bederatzigarrena. — Epaimahaia

Eskaeren analisisa eta ebaluazioa Udal Informazio Batzordeak egingo du.

Hamargarrena. — Ebazteko eta jakinarazteko epea

Diru-laguntzak emoteko jardunbidea ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Emndako eta ukatutako diru laguntzak jakinaraziko dira, bai eta eman ez direnak ere, azken horiek arrazoi hauek direla eta em geratu badira: eskarian atzera egitea, eskubideari uko egitea edo gerora sortutako ezintasun materiala.

Hamaikagarrena. — Jakinarazteko bideak

Ebazpenaren berri emango jakie interesdunei, hala aurreikusten baita administrazio jardunbide erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan.

Hamabigarrena. — Ordainketa

Ordainketa ebazpenaren barri emon ondoren egingo da, hain zuzen ere jakinarazpena jaso denetik egutegiko 10 egun igaro ondoren, betiere esanbidez uko egin ez bajako.

Hamairugarrena. — Erakunde onuradunak bere ekimenez diru laguntza itzultzea

Onuradunak Udalak eskatu barik egindako itzulketa da.

Ordainketagutunaren bidez egin beharko da.

Hamalauagarrena. — Onuradunen betebeharrak

Ordenantza honetan araututako diru laguntzen onuradunek betebeharrak dabez:

— Jarduera egitea.

— Diru laguntza emateko baldintzak bete direla justifikatzea, udaletxean ondoko:

- a) Jarduerari buruzko azalpen-memoria: betetze maila, etorritakoen kopuruak, erabilitako giza baliabideak eta materialak, hartzaileak.
- b) Gastuen eta diru-sarreraren behin betiko zerrenda eta gastuen fakturak.
- c) Jarduera bera garatzeko beste diru-laguntza batzuk jaso badira, Udalarari horren berri ematea.
- d) Argitalpen, publizitate edo jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egon beharko dau, bai eta Udalaren logoa eroan ere.

Hamabostgarrena. — Diru-laguntza itzultzea

Ondoko kasu hauetan, dirulaguntza itzuliko da eta, horrez gain, berandutze-interesak ordaindu beharko dira:

— Justifikatzeko beharkizuna ez betetzea.

— Diru laguntza eman zanean onartutako helburua ez betetzea.

— Diru laguntza emotea justifikatu eben baldintzak ez betetzea.

— Ordenantzan aurreikusitako gainerako kasuak ez betetzea.

— Ezarritako kontrola gauzatzen ez ixtea edo trabak jartzea.



Hamaseigarrena

Argitaratzea deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta Udalaren web orrian. Eta horren berri emotea Barrikako Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda dagozan elkarteei.